**RESOLUCIÓN DEL DIRECTOR DE CALIDAD AMBIENTAL Y ECONOMÍA CIRCULAR, POR LA QUE SE PRORROGA EL PLAZO DE VIGENCIA DEL INFORME AMBIENTAL ESTRATÉGICO DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS NNSS DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL DE DURANGO. UE- 11 ONA-LARRASOLOETA, SG-VM Y UE-2 BIRJINOSTE.**

## ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 7 de noviembre de 2018, el director de Administración Ambiental formuló el informe ambiental estratégico de la Modificación Puntual de las NNSS de Planeamiento Municipal de Durango. UE- 11 ONA-LARRASOLOETA, SG-VM y UE-2 BIRJINOSTE (EAES-135) que fue publicada el 21 de noviembre de 2018 en el Boletín Oficial del País Vasco (BOPV nº 224).

Con fecha 11 de octubre de 2022, el Ayuntamiento de Durango solicita prórroga del informe ambiental estratégico de la citada Modificación Puntual de NNSS. La solicitud de prórroga de la vigencia se justifica indicando la necesidad de disponer de tiempo para completar y finalizar el trámite de aprobación definitiva el Plan.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

El artículo 31.4 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental establece un plazo de cuatro años, a contar desde la publicación en el Boletín Oficial de la Resolución, para la aprobación del plan o programa.

El artículo 75.6 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi recoge que, el promotor o la promotora deberá iniciar nuevamente el

**EBAZPENA, INGURUMENAREN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIARENA, DURANGOKO UDAL PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN INGURUMEN TXOSTEN ESTRATEGIKOAREN INDARRALDIA LUZATZEN DUENA. UE- 11 ONA-LARRASOLOETA, SG-VM ETA UE-2 BIRJINOSTE**

## AURREKARIAK

2018ko azaroaren 7an, Ingurumen Administrazioaren zuzendariak Durangoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren ingurumen-txosten estrategikoa egin zuen. UE- 11 ONA-LARRASOLOETA, SG-VM eta UE-2 BIRJINOSTE (EAES-135); 2018ko azaroaren 21ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA, 224. zk.).

2022ko urriaren 11n, Durangoko Udalak arau subsidiarioen aldaketa puntualaren ingurumen-txosten estrategikoa luzatzea eskatu zuen. Indarraldia luzatzeko eskaera justifikatzeko adierazi behar da denbora izan behar dela Planaren behin betiko onarpen-izapidea osatu eta amaitzeko.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31.4 artikuluak lau urteko epea ezartzen du, Ebazpena Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, plana edo programa onartzeko.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.6 artikuluak jasotzen duenez, sustatzaileak berriro hasi beharko du plan edo

trámite de evaluación ambiental del plan o programa, salvo que solicite la prórroga de su vigencia al órgano ambiental. En este supuesto, el órgano ambiental otorgará, en su caso, un nuevo plazo de vigencia del informe ambiental estratégico en los términos que se determinen reglamentariamente.

programaren ingurumen-ebaluazioaren izapidea, salbu eta indarraldia luzatzea eskatzen badio ingurumen-organoari. Kasu horretan, ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoaren beste indarraldi bat emango du, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan.

El artículo 32.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas establece que la Administración, salvo precepto en contrario, podrá conceder de oficio o a petición de los interesados, una ampliación de los plazos establecidos, que no exceda de la mitad de los mismos, si las circunstancias lo aconsejan y con ello no se perjudican derechos de tercero. El acuerdo de ampliación deberá ser notificado a los interesados.

Non eta kontrakoa ezartzen ez den, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.1 artikuluak ezartzen du Administrazioak, bere kabuz edo interesdunek eskatuta, ezarritako epeak luzatu ahal izango dituela, gehienez ere epe horien erdia gainditu gabe, eta beti ere, egoerak hala eskatzen badu eta hirugarren baten eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Zabaltzeko erabakia interesdunei jakinarazi beharko zaie.

Asimismo, el artículo 32.3 de la citada norma recoge que, tanto la petición de los interesados como la decisión sobre la ampliación, deberán producirse, en todo caso, antes del vencimiento del plazo de que se trate. En ningún caso podrá ser objeto de ampliación un plazo ya vencido. Los acuerdos sobre ampliación de plazos o sobre su denegación no serán susceptibles de recurso, sin perjuicio del procedente contra la resolución que ponga fin al procedimiento.

Era berean, aipatutako arauaren 32.3 artikuluak jasotzen duenez, bai interesdunen eskaera, bai luzapenari buruzko erabakia, dena delako epea amaitu baino lehen hartu beharko dira. Inola ere ezin izango da luzatu jada amaitutako epe bat. Epeak luzatzeari edo ukatzeari buruzko erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu, prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka bidezkoa den errekurtsoa alde batera utzi gabe.

Considerando que no se han producido cambios sustanciales en los elementos esenciales que sirvieron de base para realizar la evaluación ambiental del plan.

Kontuan hartu da ez dela funtsezko aldaketarik gertatu planaren ingurumen-ebaluazioa egiteko oinarri izan ziren funtsezko elementuetan.

Vistos la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y demás normativa de general y concurrente

Hauek guztiak aztertu dira: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarr tasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta oro har eta aldi

aplicación,

berean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horrenbestez, honako hau

**RESUELVO:**

**Primero.-** Establecer una prórroga de dos años - a contar desde la finalización de la vigencia del actual informe ambiental estratégico - de la vigencia del informe ambiental estratégico de la Modificación Puntual de las NNSS de Planeamiento Municipal de Durango. UE- 11 ONA-LARRASOLOETA, SG-VM y UE-2 BIRJINOSTE. Transcurrido este plazo, el informe ambiental estratégico perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios. En este caso, el promotor deberá iniciar nuevamente el procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada del plan.

**Segundo.-** Comunicar la presente Resolución al Ayuntamiento de Durango.

En Vitoria-Gasteiz, en la fecha indicada en la firma electrónica.

**ERABAKITZEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Durangoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren ingurumen-txosten estrategikoaren, UE- 11 ONA-LARRASOLOETA, SG-VM eta UE-2 BIRJINOSTE izenekoaren, indarraldia bi urtez luzatzea, egungo ingurumen-txosten estrategikoaren indarraldia amaitzen denetik aurrera. Epe hori igarota, ingurumen-txosten estrategikoak indarraldia galduko du eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio. Kasu horretan, sustatzaileak berriro hasi beharko du planaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau Durangoko Udalari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoan adierazitako egunean.

**JAVIER AGIRRE ORCAJO**
DIRECTOR DE CALIDAD AMBIENTAL Y ECONOMÍA CIRCULAR
INGURUMENAREN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIA
(firmado electrónicamente)
(elektronikoki sinatuta)

Javier Agirre Orcajo

Firmado digitalmente por Javier Agirre Orcajo
Fecha: 2022.10.25 14:04:45 +02'00'